

ONGi

Gure enpresan ez dugu inolako hornitzailerik behar; izan ere, ez dugu behar inork gu materialez hornitzea, ez baitugu gauza material bat saltzen, baizik eta behar duen jendeari aukerak saltzen dizkiogu. Gure enpresak zerbitzuak eskaintzen ditu, eta aplikazio baten bitartez egiten duenez ez dugu inolako materialik behar.



Bestalde, bazkideak bai beharrezkoak ditugula. Gure bazkideak GKE-ak dira, hala nola Gurutze Gorria (erakunde humanitario boluntarioa, giza garapena eta komunitatea bilatzen duena), Caritas (karitatezko eta gizartezko ekintza burutzen duena), UNICEF (umeen pobrezia ezabatzea helburu dutenak) ... eta hainbeste ezagutzen ez diren beste elkarte txiki batzuk, dohaintzen aukerak handitzeko.

Gure enpresarentzat GKE-ak ezinbestekoak dira. GKEek lana errazten digute, haiek kolektibo jakin batzuk kontuan hartzen baitituzte, eta guk mota guztietako produktuak eskeintzen ditugu gure aplikazioan. Horrela, GKE bakoitzak beraien beharrak asetzeko behar dituzten produktuak aukeratuko dituzte, eta gu ez gara ibili behar kolektibo bakoitzaren beharrak zeintzuk diren aztertzen. Gure aplikazioa eta GKE-ren lana elkartuz, banaketa izugarri errazten dugu.

